

Unibertsitaterako

lankidetza-proposamena

2026 | 2027 ikasturtea





Edukia

SARRERA.....	3
SENTSIBILIZAZIO-SAIOAK.....	4
IRAKASLEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA.....	7
METODOLOGIA BERRITZAILEAK.....	8
GAL/MALEN TUTORETZA-LANA.....	9
BIDEZKO EKONOMIA BATERAKO PRESTAKUNTZA ETA MOBILIZAZIOA.....	11
BALIABIDE DIDAKTIKOAK.....	13
EL NIDO.....	18
JARRI HARREMANETAN GUREKIN.....	19

Sarrera

Ekonomia bidezkoago baten alde lan egiten dugu, pertsonak eta natura ardatz dituenak.

Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomialariak-etik uste dugu ekonomia **ongizate kolektibora eta planeta-ren zaintzara** bideratu behar dela. Horregatik, urteak daramatzagu hezkuntza-espazioetan ekimenak garatzen, **Ekonomia Sozial eta Solidarioa eguneroko errealitatearekin konektatutako ikuspegi praktikoa** batetik hurbilduz.

Gure ustez, hezkuntza funtsezko tresna da gizarte ekitati-boago, inklusiboago eta jasangarriago baterako eraldaketa sakona sustatzeko. Azken urteotan Bigarren Hezkuntzako (DBH eta Batxilergoa), Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikastetxeetan lan egin dugu, teoria eta praktika elkarren osagarri diren ikaskuntza-espazioak sortuz, **Ekonomia Sozial eta Solidarioa** ideia eskuraezina ez dela frogatzeko, pertsonen ongizatea eta ingurunearekiko errespetua bermatzeko gai den alternatiba bideragarria baizik.

Ikasgeletan esku hartzeko dugun moduak eta hezkuntza-formatuek **malgutasuna eta aniztasun metodologikoa** dituzte ezaugarri. Hainbat jarduera-eremutatik lan egiten dugu, eta proposatzen ditugun edukiak eta balioak ikasleek ulertzeko eta barneratzeko **tresna berritzaileak** erabiltzen ditugu. Sentibilizazio-saioak egiten ditugu eztabaida eta hausnarketa sustatzeko; ikuspegi hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten irakurketa eta analisi kritikoko dinamikak bultzatzen ditugu; eta parte hartzeko espazioak sustatzen ditugu, non ikasleek esperimentatu dezaketen eraldaketa soziala hurbileko eta eguneroko bizitzan ere hasten dela



Sentsibilizazio-saioak

HELBURUAK ETA METODOLOGIA

HELBURUAK

- Egungo eredu ekonomikoari eta horrek gizartean, ekonomian eta ingurumenean dituen ondorioei buruzko begirada kritikoa sustatzea.
- Elkartasunari, justizia sozialari eta iraunkortasunari lotutako balioak sustatzea.
- Ikasleek alternatiba eraldatzaileen garapenean **aktiboki parte har dezaten** bultzatzea: proposamenak eta ekintzak ikasgelan eta hurbileko errealitatea.

METODOLOGIA

- **Ikuspegi parte-hartzailea eta dinamikoa:** interakzioa, ikaskuntza kolektiboa eta esperientzien trukea lehenesten ditugu, Mentimeter bezalako lan-kidetza tresnen bidez.
- **Benetako kasuak eta hurbileko adibideak:** benetako eredu ekonomiko bidezkoagoak, solidarioagoak eta eraldatzaileagoak aurkezten ditugu.
- **Sormen-tresnak:** parte-hartzea, hausnarketa kritikoa eta kontzeptuen ulermena bultzatzen duten talde-dinamikak, eztabaidak, jokoak eta ikus-entzunezko baliabideak.



| Sentsibilizazio-saioak

GAIKAK ETA EDUKIAK

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

Ba al dago ekonomia justuagoa eta jasangarriagoa eraikitzerik?


Egungo sistema ekonomikoak sortu-tako desberdintasunak aztertzen ditugu, eta pertsonen bizitza eta ongizatea erdigunean kokatzen dituzten eredu alternatiboak ezagutuzen ditugu. .



EKONOMIA FEMINISTA

Ekonomia ikuspegi feministatik aztertzea, genero-desberdintasunak eta bizitza eta ekonomia eusketeko zainketen garrantzia ikusaraziz.

Eredu ekonomiko tradizioaletan dauden botere-harremanak eta joerak zalantzan jartzea. Eredu ekonomiko eta sozial bidezkoagoak, inklusiboagoak eta ongizate kolektibora bideratuagoak lortzeko garrantziari buruz hausnartzea.



INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

Ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harremana aztertzea, planeten mugak eta egungo eredu ekonomikoaren inpaktu sozial eta ekologikoak ezagututa. Baliabideen erabilerari, klima aldaketari eta ingurumen desberdintasunei buruz hausnartzea, ekoizpen eta kontsumo logika nagusiak zalantzan jarritz. Bizitzaren eta planetaren jasangarritasuna erdigunean kokatuko duten alternatiba ekonomikoak aztertzea.



| Sesiones de sensibilización

TEMÁTICAS Y CONTENIDOS

EKINTZAILETZA ERALDATZAILEA ETA CANVAS SOZIALA

Ekintzailatzaren kontzeptuari buruz hausnartzen dugu. Pertsonak eta guztion ongia lehenesten dituzten ekiteko beste modu batzuk deskubritzen ditugu, ekintzailatza eraldaketa sozialerako tresna gisa ulertuta.

Eraldaketa sozialeko, jasangarritasuneko eta berdinatsunea sustatzeko balioak dituzten proiektuak diseinatzeko ikasten dugu. Canvas-a ideiak zehazteko eta ekimen bideragarri, solidario eta bidezko bihurtzeko tresna gisa erabiltzea.

INTERSEKZIONALITATEA

Diskriminazio eta zapalkuntza sozial mota desberdinei buruzko hausnar-keta sustatzea, ikuspegi feministeta-tik eta LGTBI+ mugimenduko ikuspe-gitik. Botere-harremanak eta horien arteko erlazioa aztertzea.

FINANTZA ETIKOAK

Egungo banku-sistemaren funtzio-namendua ezagutzea. Finantza-alternatiba gardenak, solidarioak eta espekulazio-logikatik kanpo daudenak aztertzea. Finantzaz Haratago sarearen parte gara, eta horrek auke-ra ematen digu beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko, finantza-hezkuntza kritikoa sustatzeko eta esperientziak partekatze.

EKONOMIA ZIRKULARRA

Egungo ekonomia linealaren ereduaren funtzionamendua aztertzen dugu, bai eta horrek sortzen dituen ondo-rioak ere. Ekonomia zirkularraren eredua ezagutzen dugu, jasangarriagoa, bidezkoagoa eta onuragarriagoa, bai ingurumenerako, bai gizarterako.

KONTSUMO ARDURATSUA

Gure kontsumo-ohituren ondorioei buruz hausnartzea eta alternatiba jasangarriak ezagutzea. Donostiako kontsumo arduratsuaren sarearekin, SARETUZekin, lankidetzan ari gara.

Irakasleei laguntzeko zerbitzua

Hezkuntza eraldaketa-prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu.

Hezkuntza eraldaketa-prozesu kolektibo gisa ulertzen dugu, ikasleak eta irakasleak inplikatzeko dituen, pentsamendu kritikoak eta haren transmisioa bultzatuko duten tresnak sustatuz.

Ikasturte honetan, irakasleei laguntzeko zerbitzu bat eskaintzen dugu, eduki kritikoak eta metodologia parte-hartzaileak txertatzeko, eta, horretarako, banakako laguntza emango diegu interesa duten irakasleei

Nahikoa da posta elektronikoz harremanetan jartzea, > proposamenak edo aholkularitza eskatzeko:

Zerbitzu hori irakasleek beren ikasgelako errealitateari eta premia espezifikoari buruz duten esperientzian eta ezagutzan oinarritzen da, eta, horri esker, modu egokiagoan bideratu daitezke eskaintako proposamenak eta baliabideak. Gure abiapuntua da material eta dinamika ugari ditugula, eta, beraz, batzuetan zaila izan daiteke testuinguru bakoitzerako egokienak hautatzea. Horregatik, irakasleek egin dezaketena da idatzi zer gai edo kontzeptu landu nahi duten, eta beren mailari, testuinguruari eta denbora erabilgarriari egokitutako baliabideak eta jarduerak proposatzen dizkiegu, materialak egokitzeko eta euskaratzeko laguntza eskaintzeaz gain.



ecosfron.euskadi@ecosfron.org



| Metodologia berriak

ZUBI EKINTZA

Ekonomia Sozial eta Solidarioari lotutako ekintzailetzako kasu errealak ikasgelara hurbiltzen ditugu, ikasleek lankidetzan, inpaktu sozialean eta jasagarritasunean oinarritutako ekiteko beste modu batzuk daudela erakusten duten esperientziak bertatik bertara ezagut ditzaten. Ekimen horietako asko emakume migratuek eta ibilbide desberdinak dituzten beste pertsona batzuek gidatzen dituzte, eta ES-Sak aukerak nola sortzen dituen eta komunitate inklusiboak nola indartzen dituen erakusten dute.

ZERBITZU-IKASKUNTZA

ApS metodologiak konbinatu egiten ditu nahita ikastea eta komunitateari zerbitzua ematea, hausnarketa eta ebaluazioa integratuz hezkuntza-prozesuaren funtsezko zati gisa. Ingurunean benetako eragina duten proiektuen bidez, ikasleek ezagutzak eskuratzeaz gain, konpromiso sozialarekin lotutako gaitasun pertsonalak eta sozialak ere garatzen dituzte. ESSrekin lotzen da, inguruko erakundeen behar zehatzei erantzuten dieten proiektuak eginez, eragileen arteko lankidetzak bultzatuz eta lankidetzak, elkartasuna, ekitate eta guztion ongiarekiko konpromisoa eta antzeko balioak praktikan jarritz.



| GAL/MALen baterako tutoretza

Gero eta ikasle gehiagok ekonomia kritiko eta eraldatzaile batera bideratu nahi dute **Gratu Amaierako Lana (GAL)** edo **Master Amaierako Lana (MAL)**. Hala ere, hori ez da beti erraza izaten: material alternatiboen, baliabide akademiko egunera-tuen eta, bereziki, **ekonomia ulertzeko eta garatzeko beste modu batzuk eraikitzen** zuzenean lan egiten duten erakun-deekiko loturen falta dago.



Gure laguntzak ohiko laguntza akademikoa gainditzen du.

Hiru modutan egiten dugu:



Ekonomia kritikoarekin lotutako ma-terialak emanez.

- Bibliografia
- Ikerketak
- Hezkuntza-baliabideak



Mugarik gabeko Ekonomialarien lan-eremuei lotutako ikerketa-ildoak planteatuz.



Ikasleak ESSren sareekin eta esperient-ziekin konektatuz, beren landa-lana garatzeko.

| GAL/MALen baterako tutoretza

Eredu horrek, ikuspegi alternatiboetara hurbiltzeko aukera emateaz gain, **ikerketa eta praktika lotzen ditu**, eta ikasleei aukera ematen die zuzenean esperimentatzeko nola jardun dezakeen ekonomiak gizartea eraldatzeko tresna gisa. Emaita balio akademikoa duen lan bat da, eta, aldi berean, aplikazio erreal bat duena.



Web-orri orokorra:

<https://tfgeconomiajusta.com/eu/hasiera/>

Aurreko lanak:

<https://ecosfron.org/portfolio-category/otras-publicaciones/>

Gaien aurkibidea:

<https://tfgeconomiajusta.com/eu/zer-proposetzen-dizugu/gradu-amaierako-lana-master-amaierako-lana/>



Bidezko ekonomia baterako prestakuntza eta mobilizazioa

PRAKTIKAK MGEREKIN

Osagai eraldatzaile nabarmena duen prestakuntza-esperientzia. Praktiketan dauden pertsonen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuetan parte hartzen dute, non egungo eredu ekonomikoa zalantzan jartzen den eta alternatibak aztertzen diren ekonomia kritikoaren ikuspegitik. Gainera, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sareetan integratzeko aukera dute, bileretan eta batzarretan parte hartuz, eta eredu ekonomiko bidezkoago eta jasangarriago baten alde lan egiten duten espazio kolektiboak nola antolatzen diren zuzenean ezagutuz.

Praktiketan dauden ikasleak erabat integratzen dira Mugarik Gabeko Ekonomialarien taldeko egonaldian, eta posta propioa, harrera-prozesua eta praktiken jarraipenerako dokumentu bat dituzte, beren interesetara eta erabilgarritasunera egokituak, parte hartzen duten prozesuan adostutako konpromisotik eta erantzukidetasunetik abiatuta.

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras



Bidezko ekonomia baterako prestakuntza eta mobilizazioa

MOBILIZATZEKO ETA ELKARTZEKO GUNEA

EKONOMIA KRITIKOAREN BURUZKO JARDUNALDIAK

Gazteak indartzea eta prestatzea, ikas-
teko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko
guneen bidez:

Aurreko edizioak

[Ekonomia Kritikoari buruzko XX. Jardu-
naldiak, 2026ko ekainaren 10etik 12ra](#)

[Ekonomia Kritikoa Ekinean III 2025](#)

[Ekonomia Kritikoa Ekinean IV 2026](#)

[Economía Summer Tour 25](#)

[Beste ekonomia bat abian dago 25](#)

Jarduera horiek, beste askorekin bate-
ra, urtero egiten dira. 26/27 ikasturtean
parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin
harremanetan.

 JORNADAS DE
ECONOMÍA CRÍTICA

EKONOMIA BIRPLANTEATZEN DUTEN EMAKUMEAK

“Ekonomia birplanteatzen duten
emakumeak” on-line argitalpen irekia
eta kolektiboa da, eta modu aktiboan
parte hartzeko aukera ematen dio
hainbat diziplina, leku eta denboratik
eredu ekonomikoa birplanteatzen
lagundu diguten emakume aka-
demikoak irakurtzen eta
deskubritzen joateko interesa duen
edonori.

Ezagutzen al duzu proiektuan
sartzea eta erakusketan jartzea
gustatuko litzai-zukeen emakumerik?
[Parte hartu hemen.](#)

Irakaslea zara eta ikasleen parte hartzea
sustatuko duen duten jarduera bat
antolatzea gustatuko litzaizuke?
Idatziezaguzu hona:
ecosfron.euskadi@ecosfron.org


Mujeres que replantean la economía
Ekonomia birplanteatzen duten emakumeak

PRESTAKUNTZA- IKASTAROAK UNEDekin

- **Udako ikastaroa:** Inperialismoen go-
rakadaren ondoren: ekonomia justu eta
pluralerantz. Irailaren 29a.
- **Lurralde garapenari buruzko 5 hitzaldi-
ko zikloa:** 2026ko irailetik 2027ko urta-
rilera, hilean behin.
- **2030 Agenda zeharkakotuz unibertsita-
tateko irakaskuntzan.** 26/27 ikasturtea.
Baiezatzetze dauden datak.



Informazio gehiago nahi baduzu, jarri
gurekin harremanetan:

ecosfron.euskadi@ecosfron.org

 UNED

Baliabide didaktikoak

KORRONTE HETERODOXOEN ESKULIBURUA

Eskuliburuak ekarpen apala egin nahi du, baina erabilgarria izatea espero dugu, sei korrante ekonomiko heterodoxoren ideia eta proposamen nagusiak modu ulergarrian ezagutarazteko:

- Ekonomia ekologikoa
- Ekonomia feminista
- Ekonomia instituzionala
- Ekonomia marxista
- Eta garapenaren ekonomia
- Ekonomia postkeynesiarra

Gure ustez, lehen hurbilketa hori baliagarria izan daiteke bai Ekonomiako irakasleentzat, bai eskola heterodoxoetara lehen aldiz hurbiltzen direnentzat, eta espero dugu horrekin gizarte-justiziako, hezkuntza-kalitatearen hobekuntzako eta zabalkunde demokratikoko proiektu bat lortzen ere lagundu ahal izango dugula. .



[Pentsamendu-eskola heterodoxoen eskuliburua](#)



Baliabide didaktikoak

2030 AGENDA TRANSBERTSAL BIHURTZEA

MgE EUSKADIK

MgE Euskadik 2030 Agenda eta GJHak unibertsitateko hurbiltzeko gida praktikoa aurkeztzen du, ikuspegi kritiko eta eraldatzaile batetik.

Dokumentuak honako hauek jasotzen ditu:

Krisi ekosozialari eta unibertsitatearen zeregina birplanteatzeko beharrari buruzko **esparru teorikoa**.

Proposamen didaktikoak eta jarduerak, zenbait irakasgaitan aplikatzeko prestatuak.


Irakaskuntzan eta ikerketan genero-ikuspegia, **jasangarritasuna, ikuspegi dekoloniala eta justizia soziala txertatzeko iradokizunak**

Ikasgeletan eta ikerketa-proiektuetan transbertsalitatea nola txertatu erakusten duten **baliabide eta adibide praktikokoak**.

Irakasleei, ikertzaileei eta unibertsitateko komunitate osoari zuzendutako tresna bat, eraldaketa sozialarekin konprometitutako herritar kritikoak prestatu nahi dituenak.



[2030 Agenda txertatzea unibertsitateko irakaskuntzan eta ikerketan](#)



Baliabide didaktikoak

UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDE BERRIA

6. LIBURUKIA


Nazioarteko merkataritza

- 1. UNITATE DIDAKTIKOA. Merkataritzaren dinamikak eta joerak nazioartean.
- 2. UNITATE DIDAKTIKOA. Nazioarteko merkataritzaren teoria nagusiak.
- 3. UNITATE DIDAKTIKOA. Nazioarteko merkataritzaren fokua irekiz.



Baliabide didaktikoak


UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZARAKO BALIABIDEAK



Baliabide didaktikoak

DOSIERRAK

Urtean zehar, hiru hilean behin, dossier tematikoak egiten eta argitaratzen dira, gaurkotasun sozioekonomikoaren hainbat alderdi aztertzeko. Material horiek eztabaida eta dinamika ekonomiko eta sozial nagusien irakurketa kritikoa eta eguneratua eskaintzen dute, eta horiek ulertzea eta hezkuntzako eta hausnarketa kolektiboko testuinguruetan aplikatzea errazten duten azterketa-gakoak txertatzen dituzte.



Irakurketa kritikoa

Eztabaidak

Analisia

Hausnarketa kolektiboa

<https://ecosfron.org/publicaciones/dossieres-esf/>



Baliabide didaktikoak

EL NIDO. Hezkuntza eta ekintzailetzako plataforma birtuala

El Nido MgEk sortutako ESSren plataforma birtual bat da. Pertsonak eta planeta erdigunean jarritz ekintzaile izan nahi duten pertsonak eta erakundeak konektatzea da helburua. Sare sozial gisa funtzionatzen du, eta profil bat sortzeko, taldeetan parte hartzeko, ideiak partekatzeko eta proiektuak bultzatzeko edo sendotzeko baliabide erabilgarriak eskuratzeko aukera ematen du.



Tokiko garapena
Bizitza erdigunean
Ongizate kolektiboa

<https://elnido.ecosfron.org>



Nahi al duzu elkarrekin lan egitea ideia horiek zure ikastetxean ezartzeko?

Irakasle talde aktibo baten sorrera bultzatzen ari gara, gure hezkuntza-proposamenen inguruan lankidetzagune parte-hartzaile bat eraikitzeko. Espazio horri esker, garatzen ditugun saioei, landutako edukiei eta ikasleen behar espezifikoiei buruzko hausnarketak, esperientziak eta ekarpenak partekatu ahal izango ditugu.

[Irakasle kritikoen sarea](#)



EGIN KLIK INFORMAZIO
GEHIAGO LORTZEKO

Aurkeztutako proposamen batek edo edukiren batek zure interesa piztu badu eta gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, kanal hauen bidez egin dezakezu:



ecosfron.euskadi@ecosfron.org

722 371 633



BILBOKO EGOITZA

Harrobia Plaza 4, 2. solairua
48003, Bilbo, Bizkaia



Tel. 722 37 16 33



ecosfron.euskadi@ecosfron.org



DONOSTIAKO EGOITZA

Iruresoro Plaza, 2, 4, 20012
Donostia, Gipuzkoa



Tel. 722 37 16 33



ecosfron.euskadi@ecosfron.org

